



# Pila-pilean

UDALAKO Soraluzeko hilabetekaria  
2024ko otsaila · 407. alea

2024RAKO UDAL  
AURREKONTUA  
**AROTEGI ZAHARRA  
BOTATZEA  
PROIEKTUEN ARTEAN**





# PIL-PILEAN 407

2024ko otsaila

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi.

## Aurkibidea

- |    |  |   |
|----|--|---|
| 4  | <b>Elkarrizketa</b> Aitor Odriozola                              | IRITZIA   |
| 6  | <b>Begira</b> Señora Eguna                                       | 3 <b>Neuretik</b> Juan Fernandez Conde<br><i>Euskaraz denak, arima guztiak</i>    |
| 8  | <b>Zer berri</b> Aktualitateko albisteak                         | 16 <b>Gutunak</b> Joxean Iñurrieta <i>Nola suspertu zorientasunaren kimikoak?</i> |
| 14 | <b>Argazki bidez</b> Aratuste-zapatua                            | 16 <b>Komiki tira</b>   |
| 18 | <b>Erreportajea</b> Udalaren aurrekontua                         | 17 <b>Hausnarketa</b> Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna                          |
| 25 | <b>Kirola</b> Boxeo jaialdia                                     | 17 <b>Puntua</b> Nerea Isasti <i>Altxa burua!</i>                                 |
| 26 | <b>Kultura</b> Javier Ariznabarreta margolaria                   |   |
| 28 | <b>Gure artistak</b> Gurutze Ariznabarreta argazkilaria          |   |
| 30 | <b>Zerbitzuak</b> Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... |   |



**Pil-pilean herri komunikabidea**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea**  
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

**Erredakzioa**  
Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno  
egoitz@pilpilean.eus  
605 706 086

**Publizitatea**  
publizitatea@pilpilean.eus

**Zuzentzailea**  
Miren Gallastegi

**Diseinua**  
Goiena  
Oier Larreategi (moldaketak)

**Maketazioa**  
Oier Larreategi

**Inprimategia:**  
Gertu Koop.

**Banaketa:**  
Pil-pilean Ekoizpena

**Lege Gordailua:**  
SS-537-2000

**Tirada:** 2.100 ale

**Babesleak**

**GOKI**  
erreformak

**SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO  
UDALA**

# Euskaraz denak, arima guztiak



JUAN FERNANDEZ CONDE

**E**rresilientzia eta biok elkar maitemindu ginen kurtsoa errepikatu eta nire gaur egungo kuadrillan lehen hitzak euskaraz esan nituenean. Ama hizkuntza erdara eta testuinguru oso bat gaztelaniaz eraikia. B eredutik D eredura. Motxila bat suspentso eta dozena bat arrautza ahoan, hitz formatuan, zein lehertuko den lehenengo. Aditza, perpausa eta ziripausa. Untxia, urtxintxa eta marurioa. Erratzen nintzen hitz jarioarekin odolki dezente egiteko aukera izango zuen herriko harakinak. Agian egin zituen? Nik zer dakit.

Egia esan, ez nekien ezer. Komunikatzeko eta zentzuz pentsatzeko gaitasun guztiak galdu nituen. Erdaraz eginez gero, mobidak lagun artean. Euskaraz eginez gero, barreak gehienetan. Zer demontre. Isilik hobea! Nortasuna eraiki beharreen, deseraikitzen.

Baina bat-batean pertsonak agertzen dira. Eta irakasle gutxi, "bat". Eta nerabezaroaren motibazioaz baliatuta, zure burua hezkuntzaren igerileku hutsera botatzen duzu eta zure ekarpena egiten duzu elkarrizketa baten; euskaraz. Gaizki, oso gaizki. Blokeo bat. Blokeo bi. Blokeo hiru. Pertsona horien aurpegian ikusten duzu hori gaizki, oso gaizki, esanda dagoela. Eta barreak espero dituzu, jada sentitu ere bai. Baina ez daude, ez dago ezer. Zulo beltz bat. Irentsi nazazu, zulo. Baina elkarrizketak normaltasunez jarraitzen du. Orduan ez nekien, baina horrelako errespetu detaileak lotsaren aurkako txerto bat jartzea bezain potenteak izan ziren. Hortik aurrera, komeriak. Baina gaurko egunera eraman nauten "ziripausak", "trapuskak" eta "txirimistak" dira horiek, gaur egun euskaraz idazteko eta bizitzeko aukera eman didatenak.

Egunerokotasunean hitz, esaldi edo azalpen bat euskaraz hasi eta erdaraz bukatzeko aukera eman didatenak, jakinda ahalegina dela euskara egiten duena. Oso argi daukat nundik natorren eta euskararen gramatikaz baliatuta, San Andresera heltzen banaiz, gaztelaniaz, seguruenik, Karaktera helduko nintzatekeela. Baina, zein ederrak diren San Andreseko lagunarteko bazkariak, pilota partidak, jaiak... Euskaraz denak, arima guztiak. Zein polita den euskaraz jakitea. Eta jakintza hori zaintzea. Eta zaintza horretaz kontziente izatea. Ez etsi, laguna. Egunen batean kapaz izango zara euskaraz bizitzeko, euskaraz mintzatzeko eta euskara maitatzeko.

**"EZ ETSI, LAGUNA.  
EGUNEN BATEAN KAPAZ  
IZANGO ZARA EUSKARAZ  
BIZITZEKO, EUSKARA  
MAITATZEKO"**

# “Sagar Erreka oso leku ona da aroztegia jartzeko”

---

**TESTUA ETA ARGAZKIA** EGOITZ UNAMUNO.

---

Urrian zabaldu zituen ateak eta leihoak Odri aluminiozko aroztegi zerbitzuak Sagar Errekan. Aitor Odriozola (Soraluze, 1972) da arduradun nagusia.

## **Nondik nora sortu da 'Odri Ateak eta leihoak' aroztegia?**

Irailean, nik aurretik lan egin dudan Elgoibarko Lodosa enpresako jabea jubilatatu egin zen eta urrian 'Odri leihoak eta ateak' proiektuari ekin genion, nik eta beste lankide batek.

Hogeita hamabi urte egin nituen lanean Elgoibarko Lodosa aluminio aroztegian eta esan liteke han egiten genuenaren jarraipen bat dela, antzeko lanak egiten ditugu eta: aluminioa, PVCa, barandillak, ateak, armairuak, kristalak, pertsianak... Makineria berria erosi dugu eta dena bertan egiten dugu, bertan moztu eta muntatu.

## **Zergatik erabaki duzue Soraluzera etortzea?**

Soraluzen ez dagoelako aluminiozko aroztegirik. Gainera, izatez, ni plazentziatarra naiz eta orain arte beti kanpoan egin dut lan, eta neure artean esaten nuen: "Etorri egin beharko gara ba Plazentziara, hemengo jendeari zerbitzua ematera". Horrez gain, leku hau, Sagar Errekako sarrera, oso leku ona da aroztegia jartzeko. Alde batetik, errepiderako sarbide ona du eta, bestetik, Elgoibar eta Eibar bost minutura daude. Bestalde, lokalaren kostua dezente garestiagoa da inguruko herrietan eta hemen, merkeagoa izateaz gain, espazioa Fogaslerrekin elkarbanatzeko aukera ere suertatu zaigu.

## **Zertan egiten duzue lanik gehien?**

Atarietako komunitateko leihoak eta ateak jartzen. Orain, fatxadak konpontzeko dirulaguntzak ematen dituztenez, arlo horretan lan asko sortzen da. Horrez gain, balkoietako barandillak ere egiten ditugu eta azken aldian kanpoko armairuak ere asko dihardugu ipintzen.

## **Nongoak dira zuen bezeroak?**

Hogei-hogeita hamar kilometroren bueltakoak dira gehienak eta, batez ere, kostaldekoak:

Ondarroa, Mutriku, Deba... Bergarara oso gutxi joaten gara. Gehiago Eibar eta Elgoibar alderantz. Soraluzen bertan ere gero eta gehiago egiten dugu lan.

## **Norbere kontura jarduteak izango ditu bere abantailak.**

Norberarentzat lan egitearen alde ona da zeure erara lan egin dezakezula, erabakiak hartu... Hori bai, hanka sartuz gero... Egia esan, aurreko enpresan ere enkargatua nintzen eta berdin-berdin hartu behar izaten nuen ardura. Lehen eta orain, bezeroari begira, ahalik eta ondoen egiten dut lan, baina, bueno, orokorrean, orain, gusturago lan egiten dut, bai.

## **Nola dago sektorea?**

Lana badago, besteak beste, gero eta jende gutxiagok diharduelako lan honetan. Aroztegiak itxi egiten dituzte eta ez dituzte berriz zabaltzen. Jendeak nahi du beste batentzako lan egitea. Sektore honetan formatuta dauden guztiak lanean dihardute baina nonbaitera dituzten duzunean, ez duzu formatutako jenderik bilatzen. Pena da.

## **Urteotan zer aldatu da langintza honetan?**

Orain aukera gehiago dago materialetan eta horrek erraztu egin du lana. Adibidez, lehen leihoak igeltseroak lotzen zituen hormara eta orain bitsarekin lotzen dira.

Gainerakoan, ba, lehenago ipintzen ziren kaxoidun pertsianak baina haiek arazo asko ematen zituzten eta, orain, berriz, zinta leihoaren barnealdetik jartzen da eta errazagoa da. Gainera, mantenimendu gutxiago behar du. Leihoetan, orain, gehien begiratzen dena da zenbat zarata kentzen duen. Ateetan ere, lehen zen *sota, caballo, rey* eta orain sekulako aukera dago, koloretan, sarrailetan, bakarrik zabaltzen diren ateak...

## **Amaitzeko, zein izan da instalatu duzun gauzarik bitxiena?**

Behin egin genuen Zumaiako lantxa batendako metakrilatozko babesgarri bat. Hori izan da egin dugun gauzarik arraroena, baina erraz moldatu ginen, neurriak hartu eta kito.



## Señora Bertso Egunekoak

**ARGAZKIA ETA TESTUA:** EGOITZ  
UNAMUNO.

Joan zen zapatuan lehen Señora Bertso Eguna ospatu zen herrian eta Euskal Herri osotik etorritako bertsolari eta bertsozale transfeministak elkartu ziren bertan. Bazkal osteko saioan, agurren atalean kantatu zituzten ondorengo bi bertsoak hautatu ditugu eguneko lagin gisa:

*Hau oasi txiki bat  
da bertsolaritzan,  
hedatzen dena baso  
tropikalaren gisan,  
ta nahiz maiz ez ausartu  
oholtzan zein bizitzan,  
orain goazen kalera  
elkarren gerizan,  
eta nahi dugun bezain  
mamarratxa izan.*  
(Miren Artetxe)

*Eguna bihurtu da  
oasi uharte,  
segi nahiko genuke  
astelehenera arte.  
Zein ederra izatea  
guzti honen parte  
zabalduz bihotzeko  
leiho eta ate,  
ahalko banu zuekin  
biziko nintzake.*  
(Sarai Robles)





# Korrika badator

MARTXOAREN 20AN PASATUKO DA HERRIAN

---

**ARGAZKIAK ETA TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.**

---

Martxoaren 20an, goizeko 11:15 aldera ailegatuko da 23. Korrika Soraluzera. Maltzagan propio desbideratu ostean, Soraluzetik buelta egingo du eta, berriz ere, Maltzagatik zehar Elgoibar alderantz jarraituko du. Soraluzen, guztira, sei kilometroko bidea egingo du.

**Irundik Baionara**

Irun (Gipuzkoa) eta Baiona lotuko ditu Korrikaren 23. edizioak martxoaren 14tik 24ra bitartean. Aukeratutako leloa: Harro Herri. "Aurreko edizioko parte-hartze masiboak argi utzi zuen gure hizkuntzaz harro gaudela eta guztion artean komunitate sendoa osatzen dugula. Oztopo guztiak gainditzeko gai den herri harroa, eta harro Korrikan", adierazi zuen Aitziber Balantzategi AEK-ko Artezkaritza-Kontseiluaren lehendakariak eta Korrika batzordeko kideak Donostiako aurkezpenean.

**Korrika batzordea**

Soraluzeko AEK-k deituta, urtarrilean eratu zen Soraluzeko Korrika batzordea eta joan zen astelehenean egin zuen bigarren bilera. Bertan, herriko hainbat talde eta erakundetako ordezkariak batu ziren eta korrika egingo duten taldeen zerrenda osatzearekin batera, kilometroen salmenta



Korrika Batzordeko zenbait ordezkari.

eta Korrika Kultureko ekimenen egitaraua osatzeari ekin zioten. Batzordea martxoaren 4an batuko da berriz, eta bertan zehaztuko dituzte korrika egingo duten ordezkarien behin betiko zerrenda eta kultur egitaraua.

**Autobusa Debarrenetik**

AEK-k jakinarazi duenez, martxoaren 24an, Debarrenetik Baionara joateko autobusa antolatu dute. Izen-ematea zabalik dago 688746634 telefonora deituta.

**KORRIKA BATZORDEA  
MARTXOAREN 4AN  
BATUKO DA BERRIZ,  
KORRIKALARIEN  
ZERRENDA OSATZEKO**



Ikus Korrika.eus webgunean.

---

**Ibilbidea herrian**

---

Korrika Maltzagatik ailegatuko da Soraluzera eta poligonotik barrena sartuko da herrian. Gainaldeko saihesbidetik joan eta Olako zubia igarota, Errabaletik zehar, Zubi Nagusitik sartuko da Kalebarrenera eta handik gora joango da Ezozibidean barrena berriz poligonotik ateratzeko.




# Korrika Kulturala

## ZUHAITZ EGUNA

Martxoak 3. 9:00etan. Urkia Zelain.  
*Baso Biziak eta Soralezeko Udala.*

## FILMA Bizkarsoro

Martxoak 14, 19:00etan. Herriko Antzokian.  
*Soraluzeko Udala.*



## BAKARRIZKETA Magma Mia

Beatriz Egizabal. Martxoak 16, 19:00etan. Herriko Antzokian.  
*Udaleko Berdintasun Batzordea.*



## HITZALDI-DANTZATUA Korrotik pikutara

Martxoak 17, 18:00etan. Kainoi Fabrikako aterpean.  
*Urrats dantza taldea.*

## LIBURU AURKEZPENA Loak ezkututzen duena

Patxi Zubizarreta. Martxoak 18, 19:00etan. Udal liburutegian.  
*Udaleko Kultura Batzordea.*



## KORRIKA SORALUZERA

Martxoak 20. 11:00etan poligonotik.

## OPERA Badon opera postdramatikoa

Martxoak 21, 19:00etan. Eibarko Coliseoan.



## IPUIN KONTAKETA Bestelako ipuinak

1-3 urte. Martxoak 22, 17:00etan. Udal liburutegian.  
*Udaleko Kultura Batzordea.*

## KORRIKA AMAIERA EKITALDIA

Martxoak 24. Autobusa Baionara joateko.

# Hitzaldi-dantzatua



## Korrotik Pikutara Euskal dantzaren historia bat

**Eguna:** Martxoak 17, domeka  
**Ordua:** 18:00  
**Lekua:** Kainoi fabrikako aterpea

**Gidaria:** Oier Araolaza  
**Musikariak:** Gari Otamendi eta Quico Pugès

Antolatzailea



Laguntzailea



SORALUZERA  
UDALA

# Euskaltegiko ikasleak

HOGETA HAMAR IKASLEK BAINO GEHIAGOK DIHARDUTE IKASTEN

Aurten, 22 herritar matrikulatu dira AEKren euskaltegian. Ináki Korta irakaslearen esanetan, aurtengo nobedadea 16-18 urte bitarteko ikasleak dira, beka sistemari esker, matrikulatu direnak. Gainerakoan, motibazio nagusia lanerako titulua lortzea da, baina badira eguneroko bizimoduan erabili nahi dutelako ikasten dutenak ere.

Etorri berrientzako ikastaroan, berriz, 12 herritarrek baino gehiagok eman dute izena eta eguaztenean ekin zioten.



Arratsaldeko taldeko ikasleak euskaltegian.



**EDU ALVAREZ**

SORALUZE

**"Badaukat B1 maila, baina B2 ateratzea nahi dut"**

"Iazko martxoan hasi nintzen euskaltegian, lanerako titulua behar dudalako. Nik eskolan ikasi nuen euskaraz eta dagoeneko badaukat B1 maila, baina B2 ateratzea nahi dut. Niretzat zailena aditzak dira eta errazena, berriz, idaztea. Gainera, gustatu egiten zait idaztea, iritzi artikulua-eta".



**MERTXE PEREZ**

SORALUZE

**"Ia dena ulertzen dut eta berbetan ere egiten ditut nire 'pinitoak'"**

"Ni iazko urrian hasi nintzen euskaltegian eta nire helburua da B2 maila ateratzea, gero lanean erabiltzeko. Gaur egun ia dena ulertzen dut eta berbetan ere egiten ditut nire *pinitoak* (barreak). Nik gaztetotan nazionaletan ikasi nuen euskaraz zerbait eta gero lagun artean eta familian ere egin izan dut, seme-alabekin ere bai".



**ANDRE NUNES**

AZORE IRLAK

**"Nik euskaraz bizitzea nahi dut"**

"Duela zortzi urte hasi nintzen euskara ikasten eta irailan hasi naiz berriz. Ulertzen dut, baina nik euskaraz bizitzea nahi dut. Kuadrillan eta familian euskaraz egiten dute eta nik ere egin nahi dut. Normala da Euskal Herrian euskaraz egitea. Nik portugesa, gaztelera eta ingelesa berba egiten ditut eta frantsesa eta alemaniera ulertzen ditut".



Etorri berrientzako euskara ikastaroan matrikulatutako herritarrak.



**CLAUDIA CASTRO, JUAN CARLOS SALAZAR** KOLONBIA

### "Interesatzen zaigu bertako hizkuntza ikastea"

"Duela hamar hilabete etorri ginen Bergarara Kolonbiako Cucuta probintziatik, eta duela lau hilabetetik bizi gara Soraluzen (Zoe Antonella bilobatxoa gurditxoan). Euskara ikastaroaren berri eman ziguten udaletxean eta izena eman dugu interesatzen zaigulako bertako hizkuntza ikastea eta lagundu nahi dugulako bertako kultura zaintzen".



**NIMRA MUNIR** PAKISTAN

### "Euskaldunek ahal badute, nik ere bai"

"Orain dela bi urte etorri nintzen Soraluze eta euskaraz ikastea nahi dut. Entzuten dut euskara oso hizkuntza zaharra dela eta ikastea oso zaila dela eta abar eta abar, baina nik uste dut hori ez dela jarrera egokia. Euskaldunek ahal badute, nik ere bai. Nik berba egiten dut urduera, ingelesa eta gaztelera, eta euskaraz egiten ere ikasi nahi dut".



**MARIA ISABEL PEÑAFIEL** EKUADOR

### "Pentsatzen dut bizitza etengabeko ikasketa dela"

"2008an etorri nintzen lehenengoz Soraluze eta orain lau hilabete berriz. Nik pentsatzen dut bizitza etengabeko ikasketa dela. Lana bilatzeko behar dut euskara, enpresa askotan eskatzen dutelako. Atentzioa ematen dit euskaldun batzuek hizkuntza erreskatatzeko egiten duzen ahaleginak, horrek ezaugarritzen zaitutete".

# Soraluzeko TEK aurkeztuko dute

Martxoaren 11n izango da aurkezpen ekitaldia, 18:30ean Herriko Antzokian, herritar guztiendako zabalik izango da saioa

Martxoaren 11n, Soraluzeko Tokiko Energia Komunitatea (TEK) aurkeztuko dute, 18:30ean, Herriko Antzokian. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Soraluzeko Udalak sustatuta, "norbere energia kontsumitzeko modu eraginkor eta iraunkorrago bat eskainiko du", Soraluzeko Udalaren esanetan.

Gaineratu duenez, "eredu horrekin, hemen sortutako energia autokontsumitzeko aukera" izango du herritarrak,



Soraluzeko TEKen web orria.

"energetikoki independenteago bihurtuz eta, gainera, faktura elektrikoan aurrezpena lortuz" eta esandakoaren arabera, "hori guztia bideragarri izateko Soraluzeko hainbat estalki publikoetan eguzki plakak ezarri dira".

## Energia banatu

Besteak beste, energia komunitatearen web orria sortu dute, [www.tekgipuzkoa22.eus/proyectos/soraluze/](http://www.tekgipuzkoa22.eus/proyectos/soraluze/). Bertan diotenez, estalki publikoetako instalazio fotovoltaikoek (Ezoziko futbol zelaian, Plaentxi eskolan eta San Andresko frontoian) sortutako energia energia-komunitateko bazkideen artean banatzen da. Diotenez, halako jarduerak dituzten ingurumen onurekin batera, faktura elektrikoak % 25eraino murriztuko da.

# Tentsio eremuen zerrendan

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak Soraluze tentsio eremuen zerrendan sartu du, etxebizitzaren alokairuarengatik

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak otsailean argitaratu duen eguneratutako txostenaren arabera, Soraluzeko tentsio eremu gisa izendatzeko bi irizpideetatik bat bete egiten du: herriko etxebizitzaren alokairuetan eman den igoera azken bost urteotan.

Publikatutako datuen arabera, bost urtean, alokairuaren errenta %18,3 handitu da.

Behatokiak kontuan hartzen duen bigarren irizpidea, berriz,

alokairua ordaintzeko egin beharreko ahaleginak (karga guztiak barne) familia baten errentaren %30 gainditzea eta Soraluzeko kasuan, 2021eko datuen arabera, %26,2an kokatu zen ahalegin hori. Beraz, bigarren irizpide hori gutxiatik ez du betetzen Soraluzeko.

## Udalak oraingoz ez du eskatuko

Kontuak kontu, Soraluze osorik tentsio eremuan sartuta, orain, izendapen hori ofizialtzeko

bidea zabaltzen da eta tentsio eremu izendatzeak etxebizitzaren prezioetan eragiteko aukera emango luke. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak emandako xehetasunen arabera, tentsio handiko eremu izendatu daitekeen eremua identifikatzen denean, berau ez da automatikoki izendatzen. Herriko udalak horretarako borondatea agertu behar du eta udalaren eskumena erabiliz, modu formalean eskatu beharko du izendapena.

Bada, gaiari buruz Soraluzeko Udalean galdetuta, jakinarazi dute oraingoz ez dutela tentsio eremu izendatzeko eskaerarik egingo, Udala bera egiten ari den Etxebizitzaren Diagnostikoaren emaitza ikusi nahi dute edozein erabaki hartu aurretik.

**ARRANO**  
taberna  
Itami eta gozatu  
etxeko pintxoak



Etxaburueta 6

**MENDIZABAL**  
okindegia  
Ogia - Prentsa - Gosariak



Astelehenetik ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00  
Larunbetak eta igandeak  
08:30 - 13:15

Kalebarren 10  
Tel.: 943 75 13 99

**Txoko**



Eguneko menua, plater konbinatuak, hamburgonak, ogitarlekoak, ogitarlekoak, radiak, pizza, gosaria...  
Erakusketu ogitei diru  
Tel. 943 75 17 88

**Almar**  
Bospaindegia  
Estetika  
Soloriama



Gabriel 4, Arbaiz Tel.: 943 75 23 23 - 642 21 34 94

**IZAGUIRRE**  
Igeltzeritza



Erakin berriak • Kalitatezko emaitza  
Erreforma • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 013

**Hortz klinika**

Arilar Alonso  
Mediku Estomatologoa  
K.Z. 48.000.591  
Kelia Guztino  
Odontologoa  
K.Z. 48.001.541

Erabal 1  
Tel.: 943 75 16 13

**30 urte baino gehiagoko esperientzia**  
odontologia, protesiak, ortodontia,  
odontopediatria, implantak, estetika...  
Zerbitzu radiologiko orokorra (3D):  
ekianeria, orto eta tele.



**SORALUZE**  
Mendiola ind. 13  
Soraluze

576 556 817 - 943 75 21 38



**FOGASLER**  
ITURGINTZA



943 75 16 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Oñati)  
fogasleriturgintza@gmail.com

**MGS**  
Seguros

Veronica Galarraga  
Gertuko eta segurua



Astelehenetik ostiralera:  
10:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30

Santa Ana 13  
☎ 645 744 055

**ERAKUSKETA**

*Ametsak... Ametsetan?*  
Teresa Guenetxea Sebal "Uralde"  
Argazkilaria: Jose Mari Larrañaga "Txistu"  
Laguntzaileak: Soraluzeko Udala  
Pit-pilean komunikazio zerbitzua


*Inaugurazioa*  
Martxoak 2, zapatua  
12:30ean  
Kiroldegiko erakusketa aretoan



# Olinpikoak

TESTUA ETA ARGAZKIAK UBANE MADERA ZANGITU

Aratuste-zapatua ederra izan zen Soraluzen. Herritarrek irudimen oparoa dutela erakutsi eta erabat murgildu ziren olinpiadetan. Azken urteotako ohiturari jarraiki, eguerdian piztu zen jai eta bazkalordura artekoa izan zen loriatsuena, bakoitza bere paper olinpikoan bikain sartuta eta kalerik kale erakustalditxoak eginez, gehienak mozorro lehiaketa buruan. Horren harira, Udalaren erabakiz, aurren, lau beharrean, bost sari banatu zituzten, iragarritakoez gainera, belaunaldi ezberdinez osatutako talderik onena ere saritu baitzuten. Hala, honakoa izan da podiuma: irabazleak, *Sorakeriak 92*; bigarren, *Belarri Motzak Herri Kirolak*; hirugarren, *Soraluzeko Golferuak*; belaunaldi ezberdinez osatutako talde onena, *Gaizkañe eta Pelotariak* eta *Plaentxia.eus* atarian herritarren bozketaz erabakita, *AMG Piraguistak*.





## GUTUNAK

### Nola suspertu zoriontasunaren kimikoak?

**JOXEAN IÑURRIETA**

HERRITARRA

Badira eguneroko bizitzan ekintza batzuk gudan zoriontasunaren kimikoak suspertzen dituztenak:

**DOPAMINA:**

Egin lo egunean 7-9 orduz.

Ospatu eguneko lorpenak.

Egunero egizu ariketa fisikoa.

**OXITIZINA:**

Goizero gogoeta egin.

Norbait besarkatu.

Eskuzabaltasun ekintza bat egin.

**SEROTONINA:**

Eskertu egun bakoitza.

Naturaz gozatu.

Une garrantzitsuak gogoratu.

**ENDORFINA:**

Zure zaletasunei bide eman.

Maite dituzunekin barre egin.

Dantzatu, abestu.

Horiek denak edo horietako batzuk egiteko tartea hartzen badugu, litekeena da gure zoriontasun mailak eta ingurukoena ere gora egitea.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

## KOMIKI TIRA

**MEN  
DIZA  
LEAK  
AURRERA!**





## HAUSNARKETA

**Ama-hizkuntza**

Otsailaren 21 ean Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna izan zen.



**CRUZ MARIA ROMERO**  
GAZTELERA

"Ni ekuadortarra naiz sortzez eta nire ama-hizkuntza gaztelera da, amarengandik jaso nuen. Gustatuko litzaidake hobeto ikasi izana, baina ez nuen aukerarik izan. *Duermete niño* da gogoratzen dudana umetako kanta, ahizpak lotarakoan kantatzen zidana".



**IMARIAM HIDJH**  
ARABIERA

"Ni sahararra naiz eta nire ama-hizkuntza arabiera da. Han denek egiten dute arabieraz. Ni españolez ere moldatzen naiz. Hiru urte daramatzagu hemen, baina guk etxean arabieraz egiten dugu eta umeak ere ikasten dihardu, euskararekin batera".



**IRAHAL HDIDOU**  
ARABIERA

"Arabiera da nire ama-hizkuntza, amak erakutsi zidana. Mallabian bizi naiz eta han euskaraz egiten da, baina etxean arabieraz egiten dugu eta nire seme-alabek ere ikasi dute. Gainerakoan, frantsesa dakit pixka bat, gazteleraz ondo eta euskaraz zerbait".



**SONI BLANCO**  
GALIZIERA

"Nire ama-hizkuntza galiziera da. Ni Ourenseko mendi aldeko herrixka txiki batekoa naiz eta han denek egiten dute galegoz. *A saia da carolina* da nire umetako kanta. Seme-alabek ere ikasi dute eta orain, batez ere, alabarekin, galegoz egiten dut".

## PUNTUA



**NEREA ISASTI**

**Altxa burua!**

**G**utako nork ez die eman seme-alabei gure mugikorra jolastu zezaten, guk bitartean, tabernan, tragoa lasai asko hartzeko? Nik aitortu beharra daukat, egin dudala. Hortaz, ez naiz inor epaile edota aholkulari lanetan ibiltzeko. Hausnarketan geratuko naiz.

Azkenaldian, herri askotan abiatu dute 'Altxa burua pantailetatik' egitasmoa. Alde batetik, lehen gailua eskuratzeko adina 16 urtera atzeratzeko asmoz eta bestetik, haur eta nerabeek, mugikorraren erabilera egokia egin dezaten. Honekin batera, hainbat Udal eta denda proiektuarekin konprometitu dira, gazteen eskutan telefono bat jartzera, hauek deitzeko beharra izanez gero. Izan ere, asko dira aitzakia hau erabiltzen duten gurasoak. –'tira, mugikorra oparituko diogu haurrari, beharra daukanean etxera dei egin dezan'-.

Zenbait datu: 12 eta 14 urteko euskal gazteen %85ak mugikorra dauka eta egunean 4 ordutik gora daude honen mende. Hots, ez da adina soilik, norberaren heldutasuna baizik.

Teknologia ez da ez ona, ez txarra. Gakoa erabilera arduratsua da. Eta hor sartzen dira gurasoak. Ez dezagun utzi erantzukizuna ikastetxeen esku, ez dezagun sinplifikatu, debekatuz. Haurrak izateaz gain, hezi ere egin behar ditugu.





# 5.576.789 euroko aurrekontua

EH Bilduren gehiengo osoz osatutako Udal Gobernu berriaren agintaldiko lehen aurrekontua onartu zuten joan den otsailaren 7an. Haren arabera, 8.250.534 euroko aurrekontua izango du Sorluzeko Udalak 2024rako, baina hortik 2.673.745 euro Ezozibideko obrei zuzendutako zuzeneko transferentzia izango da. Hori horrela, Udalak 5.576.789 euro izango ditu aurtien kudeatzeko. Iaz baino %12 handiagoa da kopurua. Testua: **Ubane Madera Zangitu**. Argazkiak: **Fernan Oregi Txurruka**.

**2**024an, Soraluzeko Udalak bere zereginetarako 5.576.789 euroko aurrekontu erreala izango du. Kopuru hori iazkoarekin alderatuta %12an handitu da. Unai Larreategi alkateak otsailaren 7ko osokoa nabarmendu zuenez, bi arrazoiengatik gertatu da hori; batetik, diru-sarrerak handitu egin direlako, batik bat, Foru Funtsetik datozenak eta bestetik, Udal Gobernuak "euste ariketa" egin duelako, bestela esanda, aurrezpen maila handitu. Horren ondorioz, Udal Gobernuak inbertsioetara bideratuko duen kopurua ere iazkoa baino handiagoa izango da, kasu honetan, iazko 125.000 euroetatik pasa da aurten 405.000 euro izatera. Alkateak azpimarratu zuenez, %2tik %6ra igo da Udalaren aurrezte maila "eta helburua da agintaldiaren amaierarako %10era ailegatzea".

### Inbertsioendako 40 bat proiektu

Inbertsioei begiratua eginez, 2024an izango diren 405.000 euroekin ia 40 proiektutarako inbertsio egitasmoak zerrendatu zituen alkateak udalbatzarrean. Horien artean, badira hainbat aurreko agintalditik datozenak, beste hainbat oposizioak egindako ekarpenak aintzat hartuta jasotakoak, herritarren eskaeren arabekoak ere badira eta noski, badira ere, Udal Gobernuak berariaz egin nahi dituen inbertsio berriak. Zerrenda ondoko taulan dago ikusgai eta hainbat inbertsioen gaineko xehetasunak ondorengo orriotan irakurgai.

Inbertsioei kopurutan begirata, handiena Plaza Zaharra ibaiarekin lotzeko proiektura bideratuko dute (46.548 euro). Arane kiroldegira ere bideratuko dituzte beste hainbat partida, padel pista estaltzeko (29.348 euro), frontoia margotzeko (10.800) zein kirol ekipamendurako (9.700 euro), adibidez. Eta beste hiru inbertsio nabarmentze aldera, berritzaileak izango dira herriko etxebizitzaren gaineko diagnostikorako bideratuko den partida (18.114 euro), herriko familietan esku-hartzea indartzeko bideratuko dena (100.000 euro), zein etorkizuneko proiektuak aurreikusitako nahian, hirigintza eta energia azterlanak egitera bideratuko dutena (65.000 euro).

### "Paradigma aldaketa"

Unai Larreategi alkatearen esanetan, aurrekontua planteatzeko moduarekin zein aurrekontuaren erabilerarekin, "paradigma aldaketa" etorriko da Udal Gobernu berriaren eskutik, aurrezpena

### 2024rako inbertsio-zerrenda

### Kopuruak

Plaza Zaharra-lbaia lotura	46.548 euro
Hirigintza lanen idazketa zuz.	45.000 euro
Padel estalpea	20.000 euro
PIIE-IEEP urbanizazioa	29.348 euro
Etxebizitza ikerketa	18.114 euro
Kultura inbertsioak	16.000 euro
Hiri mobiliarioa (erdigunea)	15.000 euro
Hiri mobiliarioa (erdigunetik kanpo)	15.000 euro
Gizarte Ongizateko inbertsioak	15.000 euro
Komunikazioa hobetzeko tresnak	14.000 euro
Frontoia margotzeko	10.800 euro
Bizikidetzako proiektu teknikoak	10.000 euro
Nekazaritza arloko inbertsioak	10.000 euro
Lursailen erosketa	10.000 euro
Kirol taldeen erabilerarako hainbat gai	10.000 euro
Energia ikerketak eta planak	10.000 euro
0-4 espazioa eta nerabeen gunea	11.000 euro
Kirol ekipamenduak	9.700 euro
Hilerrirako kolunbarioak	9.000 euro
Argiteria instalazioak	6.000 euro
Informatika ekipoak	5.000 euro
Haur parkeak	5.000 euro
Liburutegiko liburuak	5.000 euro
Sologoen inbertsioak	3.000 euro
Erretiratu etxeko instalazioak	3.000 euro
Kultur ondarearen berreskurapena	3.000 euro
Inbertsioak Haurreskola	3.000 euro
Inbertsioak musika eskola	3.000 euro
Garapen jasangarrirako proiektuak	3.000 euro
Ludoteka-Gazteleku mobiliarioa	3.000 euro

\*Partida txikiagoko inbertsio gehiago daude inbertsio zerrendan, guztira 405.510 eurora arte iritsiz



**Plaza Zaharra-ibaiari lotura** Kalebarren 24ko etxea (Txoko eta Batzoki artekoa) eraitsi eta ibaira jaisteko proiektua egingo da, hasiera baten harmailekin, anfiteatro modura-edo. Udazkenean hasiko da obra. Udalak 46.548 euroko partida bideratu du oraingoz, baina 200.000 euro beharko direla aurreikusten da.



**Padel pista estalpea** Padel pista estaltzeko 20.000 euroko partida bideratuko du Udalak, baina diru gehiago beharko da; padel pista zein skate-pista, esparru osoa estaltzeko aukera aztertuko dute, baina uste dute inbertsio handia eskatuko duela horrek eta lehenetsuna emango diote padel pista estaltzeari.

handituz eta aurrekontuaren exekuzioa %90etik gorakoa izateko lanketa eginez. Alkateak emandako xehetasunen arabera, batetik, aurrezpen maila handitu egingo dute "partidak banan-banan begiratzen eta fintzen ahalegintzen" eta bestetik, aurrekontuan jasotakoa exekutatzeko ahaleginduko dira.

### "Exekuzioa %90etik gorakoa"

Aurrekontuaren exekuzioari dagokionez, Larreategik adierazi du gestio ona dela aurrekontua ahalik eta gehien exekutatzeko: "Urteotan, ohitu izan gara erremanentea izaten urte bukaeran; nire ustez, hori ez da gestio ona, ez baita aurrekontua bere osotasunean exekutatzeko. Gure helburua da aurrekontuaren exekuzioa %90etik gorakoa izatea; aldiz, egon dira urteak ez dela iritsi ezta %80aren exekuziora ere. Aurrekontua egiten bada, bertan azaltzen diren proiektuak gauzatzeko, da. Argi ikusi behar da zeintzuk diren urteko erronkak eta horrek eskatzen duen proiektu bakoitzeko ahalegina egitea ahalik eta gehien fintzeko. Ez da normala urtea demaseko erremanentearekin bukatzea, horrek esan nahi du diru hori zerbaitetarako zegoela pentsatuta eta ez dela erabili. Diogun paradigma aldaketa hortik dator. Guk ez ditugu doikuntzak egin zerbitzuak

kentzen edo murrizten, baizik eta aurrekontuak jartzen dituen proiektuei eta numeroei fidelago izanez. Sistema honek ekarri duena da aurrezpena aurrekontuan bertan azaltzea, eta, ez urtea bukatzean dirua sobratzea. Beraz, exekuzio portzentajearen igoera emango da".

### "Aurrezpen maila igotzea"

Aurrezpen mailari dagokionez, berriz, Larreategiren ustez "klabea" da aurrezpena handitzeko gaitasuna izatea eta bide horretan

segituko du Udal Gobernuak: "Klabea da, perspektibatik ezin dugu hori galdu. Oposizioak kritikatu zuten gastu arrunta igotzea; ni horrek ez nau horrenbeste arduratzen baldin eta beharrezko proiektuetara badoa eta aurrezpen kapazitatean ere igoyerak ematen baditugu. Osotasun ariketa baten barruan, gastua eusten, zaintzen joan beharra dago, baina helburua ez da gastu korrontea txikitzea, baizik eta aurrezpen maila igotzea".

### Oposizioaren abstentzioarekin

Zenbakiak mahai gainean jarri eta azalpenak eman ondoren, bozketara pasatu zen 2024ko udal aurrekontua eta EH Bilduren aldeko botoekin eta oposizioa osatzen duten EAJ-PNVren eta PSE-EEren abstentzioarekin onartu zen.

Oposizioiko bi alderdiek bat egin zuten Udal Gobernuari egindako kritika nagusian: gastu korrontea handitu izana, zehazki, 183.000 eurotan. Espelikatu zutenenez, ez dute kritikatzeko gastua bera handitzea, baizik eta zortzi urtean EH Bildu gastu korrontearen iguera kritikatzeko ibili ondoren, gobernu hartu duenean EH Bilduk beste exijitutakoa ez betetzea, "EH Bilduk besteoi galdatutakoa ez betetzea", Iker Aldazabal jeltzalearen esanetan. *Zenbat aldiz entzun diogu EHBilduko bozeramaileari esaten gastu arrunta murriztu beharra dagoela? galdegin zuen hark.*

### EAJ-PNVren irakurketa

Halaber, Aldazabal jeltzaleak beste bi kritika ere mahai-gaineratu zituen. Batetik, kritikatu zuen Udal Gobernuak osatu zutenetik zortzi hilabete pasatu diren arren, EH Bilduren aldetik oraindik ez dagoela ez Plan Estrategikorik ezta ere proiektu inportanterik. "Inbertsioei dagokionean, inbertsio handiena Kalebarren 24ko eraikina eraisteko partida da. Jakinarazi nahi dugu, aurreko legealdian martxan



**Etxebizitza diagnostikoa** Soraluzeko Udala hasita dago herriko etxebizitzaren egoeraren gaineko diagnostikoa egiten, Aztikerren bitartez (18.114 euro). Herriko etxebizitza parkearen egoera ikusteaz batera, etxe beharra dutenen asmoak eta ahalak ere ikusi nahi ditu lan horren bitartez.



**Bi igogailu** Herrian beste bi igogailu publiko jartzeko azterlanak egingo ditu Udalak. Bata litzateke Gabolats Gabolats gainarekin konektatzeko eta bestea Musika Eskola barrurako. Horrez aparte, herri osorako Irisgarritasun Plana ere egin nahi du Soraluzeko Udalak.

### **EAJ-K GOGORA EKARRI DU ORAIN GAUZATUKO DIREN PROIEKTURIK ESANGURATSUNEAK AURRETIK DATOZELA**

### **SOZIALISTEK DIOTE AURREKONTUKO BERRIKUNTZEN ZATI BAT EUREK AURKEZTU DUTELA**

jarritako proiektua dela (...) Galdera da, *Non daude herria pizteko aldarrikatu zenituzten proiektu inportanteak/eraldatzaileak?*"

"Inbertsioei dagokionean, inbertsio handiena Kalebarren 24ko eraikina eraisteko partida da. Jakinarazi nahi dugu, aurreko legealdian martxan jarritako proiektua dela", jarri zuen adibide modura ordezkari jeltzaleak.

Ildo beretik, EAJk "ñabardura inportantea" egin nahi du esanez datozen hilabeteotan herrian gauzatuko diren proiekturik esanguratsuenak aurreko agintaldiko Udal Gobernuak egindako lanari esker lortutako proiektuak direla; "orain, badirudi Bilduk lortutakoak direla" dio ordezkari jeltzaleak, proiektuak gogora ekarriz: Plaentxi Herri Ikastetxeko igogailu panoramikoa (777.000 euro), Pascual Churrucako etxebizitza proiektua (3.500.000 euro), Gabolatseko zubia (1.888.000 euro) eta Ezozibideko urbanizazioa (888.000 euro).

Horrekin batera, Aldazabalek azpimarratu du aurrekontuan jasotako beste proiektu asko EAJ-PNVren ekarpenetatik datozela. Honakoak nabarmendu ditu: Kalebarren 24aren eraisketa eta Plaza Zaharreko urbanizazioa; Erregetxeko orubean erabilera anitzeko gune estalia eraikitzeke proiektua; eremu urbanistikoak birgaitzeko (SAPA, Olaldea...) diru partida; asfaltatze lanak burutzeko diru partida; padel pista eta skate gunea estaltzea; futbol zelaian izan diren lapurretak ekiditeko kamarak ipintzea eta bertako instalazioak (aldagelak, WCak...) zaharberritzea; musika eskolako fatxada eta teilatua konpontzea; herriko musika taldeek entseguak egiteko lokala baten kokagunearen azterketa burutzea...".

Kontuak kontu, EAJ-PNVk Udalean dituen hiru ordezkariak abstentzioa eman zuten aurrekontuaren bozketan, "oposizio eraikitzailea" egiteko asmoa dutela azpimarratuta.

#### **"Aurrekontu kontinuitateak"**

Patricia Borinaga ordezkari sozialistak, berriz, gastu korrontearen igoerari buruz egindako kritikaz aparte, aurrekontu berriak aurrekoekiko kontinuitateak direla azpimarratu zuen, gaineratuz, aurrekontu horiek "erakusten" dutela "askoz errazagoa dela agintzea eta 'sortzailea' izatea oposizioan zaudenean Gobernuan zaudenean baino".

Ildo beretik, Borinagak adierazi zuen aurrekontuan "dauden berrikuntza apurren zati handi bat" sozialistek aurkeztutakoak direla, eta, "proposamen horiek aurrekontuen negoziazioan" zein euren "hauteskunde programan" eraman dituztela; honakoak aipatu zituen zinegotzi sozialistak: "Udalaren Irisgarritasun Plana eguneratzea, hiri-espazio degradatuak berreskuratzeko eta leheneratzeko ideien lehiaketa, hiri-altzarien inbentarioa egitea edo etxebizitzaren arloan berariazko prestakuntza duen pertsona bat kontratatzea, etxebizitzak udalerrian duen egoerari buruzko azterlanetik ateratzen diren ondorioak garatzeko". Zentzu berean, sozialistek gogorarazi dute PSE-EEK kudeatzen zituzten arloetan (ludoteka eta gazteleku zerbitzuak, Esperientzia Gela, Haur eta Nerabeen Kontseiluak, Emakumeak Ahalduntzeko Eskola, etab.) abian jarritako zerbitzuak, jarduerak eta programak mantenu eta finkatu egiten dituztela oraingo aurrekontuek.

# "Orain proiektu berriak sortzea dagokigu"

UNAI LARREATEGI AZURMENDI SORALUZKO ALKATEA

EH Bilduren aurrekontuekin ziklo berria datorrela iragarri zuen alkateak, besteak beste.

## **Ziklo berria datorrela iragarri zenuen osokoan; zer esan nahi du horrek?**

Badatoz proiektu batzuk lehenagotik datozenak eta ixten doazenak. Gu horien parte ere izan ginen, oposiziotik hor egon ginen, proiektuak bultzatzen eta laguntzen. Orain, berriak sortzea dagokigu eta sortze horretan, aurrekontuan ageri diren hainbat azterlan horri erantzutera datoz. 65.000 euro baino gehiago daude proiektu diferenteak aztertzeko. Guk (EH Bilduk, Udal Gobernuak) badugu plan estrategikoa, baina ez dugu nahi hori izatea herriko plana. Herriko plana beste modu batera eraiki behar da, aktore diferenteekin, oposizioarekin zein herritarrekin kontatuta, eta hori txukun egin ahal izateko daude aurrekontuetan hainbat proiekturen azterlanak egitea jasota, gero horiek baliatuta, lagunduko digute hurrengo urteetarako ziklo berri hori diseinatzen.

## **Oposizioak, aldiz, esan zuen aurrekontu kontinuista dela, euren ekarpen asko dituen.**

Gure asmoak azaldu ostean eurek egin dituzte ekarpenak; askok aurrekontuetan edo gobernu taldeak zituen proiektu asmoekin bat egiten zuten eta ahalegina egin dugu horiek nolabait inkorporatu eta aurrekontua osatzeko. Ni pozik geratu naiz zentzu horretan egindako lanarekin. Ikusten da ez dugula proiektuen arteko talka-konflikto handirik, herriak dituen premiei buruzko antzerako diagnostikoa egiten dugu denok eta horrek



Unai Larreategi alkatea bere bulegoan. FERNAN OREGI

aurrekontua bera egitea erraztu du. Denok ados bagaude lehentasunekin, herriarentzat hobeto.

## **Aurrekontuan sartuta, inbertsioetako bi proiektu Plaza Zaharrekin lotutakoak dira; badirudi indartu egin nahi duzuela plaza.**

Jokorako bidea ematen du; ibaiarekin konektatzeko aukera sortzen da eta ikusten da egingarria dela. Eta aztertuko da Plaza Zaharra Erregetxe azpirantz zabaldu daitekeen ala ez; udal arkitektoaren ideia da hori, azertu eta gero jendearrekin batera baloratuko dugu. Ibaira

"HERRIKO PLANA ERAIKI BEHAR DA OPOSIZIOAREKIN ZEIN HERRITARREKIN KONTATUTA"

gerturatzearena, berriz, garbi ikusten da. Bestalde, Plaza Zaharrak jokorako aukera ematen duen moduan, Erregetxeak ere bai. Hori Plan Orokorrean jasota dago, Olaldea garatuko balitz, Erregetxearekin joko askoz gehiago izango genuke.

## **Aztergaien artean bi igogailu daude, Gabolats gainerakoa eta musika eskolakoa. Zailtasunen bat ikusten da horietan?**

Ez dira obra errazak teknikoki eta aurreikusten da diru partida dezentekoa beharko dela. Epe ertainera urteetako plana egin ahal izateko, zenbat errekurtsorekin kontaktzen dugun jakin beharko dugu, zein proiektu ditugun eta ahalegindu guztiak ordenatzen. Irisgarritasun Planean bi horiek aztertuko dira propio, baina Irisgarritasun Plan oso bat

## ERREPORTAJEA

egingo da udaberrian. Gune horiek eta herriko beste hainbat aztertuko dira eta lehentasun hurrenkera ipini beharko dugu. Baina aurreikusten da obra handiak bi horiek izan ahal direla eta teknikoki aztertuko dira jakiteko ea inkorpora daitezkeen. Projekta Urbesek egingo du Irisgarritasun Plana.

### **Energia azterlana ere iragarri zenuten, igerilekuan zein kale argiterian; zein zentzutan?**

Igerilekua da herrian gastu energetiko gehien eragiten duen zerbitzua; sakonera kentzeko zein inbertsio egin beharko litzatekeen begiratu nahi da, eta, hori eginez gero, zenbat aurreztu ahal den. Gero, gaia begiratzan hasi garenean, ikusi dugu hori egin duten herrietan, igerilekuari beste erabilera batzuk eman dizkiotela. Hainbat pertsonarendako erabilgarriagoa bihurtzen da igerilekua, batzuk lurra ez badute ukitzen ez dira ausartzen-eta. Batetik zein bestetik ikusten da zentzuzko kontua dela, baina kostua ikusi egin behar da.

### **Eta kale argiteria?**

Azken boladan, lasai dago kontua. Dena den, leku batzuetan armairuak eta kableatuak berritzea komeni da. Horrekin batera, aztertu nahi ditugu bestelako sistema batzuk: telegestioa, mugimenduaren arabera intentsitate gehiago izatea argiak... zein hobekuntza egon ahal den begiratu nahi dugu, eta berori baliatu inbertsioak egin eta jendeari argiteriak ondo funtzionatuko duen segurtasuna emateko.

### **Esan izan da leku batzuetan argi gutxi dagoela...**

Konplikaturik da hori. Kale argiteriako auditoriak eginda daude aurreko agintalditik; gune ilunak identifikatzen direnean hobekuntzak egiten dira. Beti

egongo gara prest jendeak esaten dituenak entzuteko eta hutsuneak irteten badira, horiek hobetzeko prest.

### **ETxebizitza diagnostikoa ere iragarri da; zer nahi da lortu?**

Zahartzen doa etxebizitza parkea, 15 urteotan Plazentzian ez delako etxe berririk egin. Horren ondorioz, hainbat etxeren baldintzak ez dira egokiak eta horrek zaildu egiten du berritze ariketa baten sartzea. Beharra dago aztertzeko zein den etxebizitzaren egoera erreala, zenbat etxe huts eta zein egoeratan dauden jakitea, baita ere, herritarrek zer etxebizitza premia duten: irisgarritasuna, erosi nahia baina gustuko etxerik topatu ezina, edo alokatu nahia eta ezina ez dagoelako aukerarik... Hori dena aztertuta, Jaurilaritzako programetan parte hartzeko asmoa dago, hitzarmena sinatzeko asmoa dugu elkarlana abiatzeko, etxejabeek lasaitasun handiagoarekin etxebizitzak alokatu ahal izateko bermea ematen duelako, eta ea kapaz garen hutsik dauden etxeak mugitzeko. Eta proiektu berrien beharra zenbaterainokoa den

"NAHI DA BEGIRATU ZEIN INBERTSIO EGIN BEHARKO LITZATEKEEN IGERILEKUARI SAKONERA KENTZEKO"

"ZAHARTZEN DOA ETXEBIZITZA PARKEA 15 URTEOTAN EZ DELAKO ETXE BERRIRIK EGIN"

ETXEBIZITZA  
DIAGNOSTIKORAKO  
AZTERLANA HASITA DAGO,  
AZTIKERREK EGINGO DU

aztertu nahi da. Olaldea, adibidez, leku on bat izan daiteke etxebizitzak egiteko, baina zenbat jende egon daiteke erosteko gogoz? Edo edadetuentsat han apartamentu txoak egiten badira, zenbat daude prest bere etxea laga eta hara joateko? Benetako dimentsioa hartu ahal izateko diagnostikoa egingo dugu. Lan ildoak nahikoa identifikatuta baditugu, baina nahi dugu ziurtatu ez dela gure ideia bat, baizik eta fundamentatuta dagoela. Ikerketa hasita dago, Aztikerrek egingo du.

### **Erraldoiak sortzeko prozesua ere iragarri da...**

Nahi dugu ikusi ea badagoen herritarrik nahiko lukeenik taldea osatu haiekin dantzan-eta kalera ateratzeko, Bergaran egiten duten moduan. Jendeak oso gustura jasotzen ditu, beraz, Soraluzean zergatik ez? Eta horrekin batera ikusi beharko litzateke erraldoiak egiteko zein figura nahiko liratekeen.

### **Azaroan Debabarrena Berpizteko Ponentzia onartu zen; hortik etorriko da onuraren bat herrirako?**

Eusko Legebiltzarrean onartu zen eskualdeko plan estrategikoa egitea. Orain, eragile desberdinekin egindako proiektu/ekarpenen analisi bat egiten ari dira eta laster izango dugu horren berri. Asmoa da udaberriko itxita izatea. Badaude herriari espresuki lotutako hainbat egitasmo, batez ere, apustua egiten zen Olaldea desataskatzeko partidaren bila joatea, Olabarrenako zubia aipatzen zen, herri barruko kotxeen zirkuitua hobetzeko eta mugikortasun perspektibatik Maltzagako intermodala eta Maltzagarainoko bidegorria. Erronka handia da, Soraluzean ahalik eta gehien ekartzearen alde borrokatuko gara.





Iazko Bergarako jaialdia. GOIENA

# Ixa Rodriguez, jaialdiz jaialdi

Boxeo ikasle, amateur, profesional, entrenatzaile, eskola zuzendari... ia rol guztiak bete ditu Ixa Rodriguezek boxeo munduan eta, orain, jaialdien antolakuntzan sartu da bete-betean.

Urtarrila bukaeran ospatu zen Ixa Rodriguezek antolatutako azken jaialdia, Arrasaten. Demaseko oihartzuna izan zuen Debagoienan hasi aurretik ere, baina arrakasta benetan konfirmatu zen Uarkape pilotalekuko ateetan *Sarrerak agortuta* kartela zintzilikatu zutenean. "Topera zegoen eta jendea kanpoan gelditu zen" dio Ixa Rodriguezek.

Uarkapekoaren ostean, deskantsurik ez, eta Soraluzeko kiroldegian egingo du hurrengo jaialdia.

## Araneko ikuskizuna

Hilaren 9an izango da eta emakumezkoen lau borroka izango ditu, gizonzkoen

Gipuzkoako finalerdietako hiru eta bertakoen beste hainbeste. Sorabox ordezkatzan egongo dira Mohzine El Kabouri, Andoni Kortabarría eta Ibon Munietagandikoetxea.

Gainera, speaker berria ekarriko dute: gasteiztarra, ekitaldi desberdinetan show-ak egitera dedikatzen dena, "espektakulua sortuko du, ziur".

## Herritarrei gonbidapena

Orokorrean "giro aparta eta borroka politak egongo direlako" gonbidatu nahi ditu herritarrak, baina baita neskek animatzeko ere: "beti gabiltza tiraka eta ezinean emakumezkoen kirola bultzatzeari dagokionean... eta

ondo legoke jaialdi honetan, borrokan daudela, merezi duten babesaren sentitzea Soraluzeko harmailetatik".

Sarrerak Gila tabernan eta kiroldegian eros daitezke, "lehenbailen hobe, egunean bertan garestiagoak izango dira-eta".

## Urteroko hitzorduak amets

Datozen ekitaldiak Elgoibarren eta Hernanin egingo ditu, bata maiatzaren 4an, bestea "San Juan aurretik-edo".

2025ra begira, esku artean "proiektu interesgarriak" dituela, baina oraingo ezin duela besterik kontatu dio, beraz... itxaron egin behar. Baina aurreratu du, etorkizunean, datak "mantentzea" gustatuko litzaizokela: hainbat herritan egingdako jaialdi horiek guztiak "urteroko hitzordu" bihurtzea.

**"NESKEK, SORALUZECO  
HARMAILETATIK,  
MEREZI DUTEN BABESA  
JASOTZEA NAHIKO  
NUKE "**

# 'Bizitza' margolanetan islatuta

JAVIER ARIZNABARRETA 22 MARGOLANEZ OSATUTAKO ERAKUSKETA JARRI DU

## TESTUA ETA ARGAZKIAK UBANE MADERA ZANGITU

Javier Ariznabarreta (Soraluze, 1953) beti izan du gustuko marrazkia eta aukera izatean, erretiratu zenean, marrazkiak egiten eta margotzen hasi zen, orain dela sei urte. "Hasieran idaztea pentsatu nuen, baina gero marraztea. Margotzen hasi, erraztasuna ikusi nuen eta segitu egin nuen. Beti izan dut beste pasio bat ere, musika (gitarra), eta biekin nabil" esplikatu du.

### 'Bizitza' erakusketa

Bietako baten emaitzarekin, margolaritzarenarekin, *Bizitza* izeneko erakusketa jarri zuen otsailaren 16an Araneke erakusketa aretoan eta ikusgai izango da otsailaren 29ra arte.

24 margolanez osatutako bilduma da, 22 dira bereak, zazpi arlotan antolatuta: *Natura*, *Begirada espaziotik*, *Tradizioa*, *Naturan bizirautea*, *Emakumea*, *Lau elementu* eta *Ikono turistikoak*. Beste bi margolanak, berriz, bere lobetako bik egindakoak dira, Ander eta Mikel Gallardok.

Momentuz, bisitari asko ari da izaten erakusketa eta jende askok esan dio "oso pertsonala eta berezia" dela, koloretsua, ideia askorekin eta kreatibo.

**Errealismo ez guztiz errealista** Ariznabarreta esplikatu duenez, bere obra ia guztiak marrazkitik abiatuta daude eta

denak daude pentsatuta "collage" modura, "pertsonaiak integratuta" daude margolanetan, "errealismo modura, baina ez guztiz errealista". Hori bai, guztiek dute lotura naturarekin edo animaliekin. "Lehenengotik pentsatu nuen bilduma modura egitea eta protagonistak izan behar zirela animaliak eta natura. Gero, baseritik, liburutatik eta beste leku batzuetatik pertsonaiak hartu eta koadroetan sartu nituen, eta bilduma horrela antolatuta dago: lehen taldean ilobak, umeak naturan jolasten; bigarren partean dimentsio handiagoko koadroak daude, *Begirada espaziotik*; hirugarren partean hartu nituen baserriko eta inguruko gauzak; laugarren parteko bi koadroak, berriz, inpresionismoan daude oinarrituta; bosgarren parte *Emakumea* da, emakumea gizakiaren garapenerako funtsezkoak delako; seigarrenean lau koadro daude surrealismoaren barruan eta zazpigarrenean, beste hiru koadro ikono turistikoen barruan. Horiez aparte, jarrita

## OBRA IA GUZTIAK MARRAZKITIK ABIATUTA DAUDE, ERREALISMO MODURA BAINA EZ GUZTIZ ERREALISTA

daude egin nuen lehen koadroa (lore) eta azken koadroa, mihisea egurrean; azken hori beste bilduma baten hasiera modura-edo".

### Beti zer egin pentsatzen

Izan ere, Ariznabarreta "beti" dago "zer egin pentsatzen, "kreatibitate aldetik", eta, margotzea bere "lanbidea" ez izan arren, "gustuko" du eta argi du beti egingo duela zerbait, nahiz eta ez egin "gauza handirik", bere esanetan. "Beti nago pentsatzen zer egin, sortze aldetik beti ateratzen da zerbait. Munduko margolari ezagunak ikusi, galerietara edo erakusketetara joan... eta ideiak hartzen dituzu". Azken batean, autodidakta da Javier Ariznabarreta, "marrazketa ona" duten margolariak inspirazio-iturri modura hartzen dituena, Da Vinci, Miguel Angel, Kandinski, Rembrandt, Picasso, Dali, Chgall edo Van Gogh jarri ditu adibide modura.

### Bakarrik ikusgai

Ariznabarreta dio berarentzat margotzen duela, batik bat nahi zuen ikusi "ea kapaz" zen koadro batzuk egiteko, "beti hobetzera joateko" helburuarekin "noski". Erakusketa jartzeko asmorik ez zuela gaineratu du, baina animatu egin zutela eta horregatik ipini zuela; hori bai, erakusketako margolanak ez daude salgai, bakarrik ikusgai.



Javier Ariznabarreta 'Begirada espaziotik' sortako obra batekin: 'Central Park gehigarriekin'.



'Flamenkoak harrapatuta', Naturan bizirautea sortakoa.



Ikono-turistikoak sortako Guggenheimen margolana.

# "Saririk onena beti da buruan daukazun argazki hori lortzea"

GURUTZE ARIZNABARRETA ARGAZKILARIA

---

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: GURUTZE ARIZNABARRETA

---

Argazkizale amorratua da Gurutze Ariznabarreta (Soraluze, 1971). Instagramen ipintzen ditu berak egindako erretratuak, gehienak paisaiei egindakoak edo naturarekin lotutakoak. Sariak ere irabazi ditu. Kontatu duenez, Pil-pileanen argazkiak ateratzen ibili zenean sartu zitzaion argazkilaritzaren harra eta bizileku duen Elgoibarren pasioz bizi du.

**Urte asko daramatzazu zaletasun horrekin, beraz.**

Pil-pileanen erosi zen lehen kamara reflexa nire esku artean jausi zenean hasi zen hainbeste betetzen nauen zaletasun hau. Hor mundu berri baten atea zabaldu zitzaidan. 28 urte nituela erosi nuen lehenengo kamera analogikoa, gerora reflex digitala eta orain mirrorlessa. Etengabe sortzen zaizkit erronka berriak, lagun berriak, kokapen berriak, teknika berriak... oso aberasgarria da.

**Zer da argazkilaritza zuretzat?**

Argia eta begiradaren arteko jolasa dela esango nuke. Niretzat zorion iturri eta sormen ariketa amaigabea. Oso momentu zirraragarriak bizitzeko aukera eman dit, bakarrik, familiarekin zein lagunartean.



Gurutze Ariznabarreta.

**Zeri, noiz eta non atera duzu azken erretratuak?**

Pasa de astean Karakate gainean neu bakarrik egon nintzen egunsentia ikusten eta argazkiak ateratzen. Bat-batean zerua gorritzen hasi zen eta inguruko behe-laino guztiak koloreztatu zituen. Magia hutsa!

**Irabazi duzun azken saria? Eta orain artekoak?**

Elgoibarren azken urteotan beti aurkeztu izan naiz egutegiko argazki lehiaketara, hamar urtetan jarraian, 10 gai desberdin emanda, denetan lortu dut saria. Aurten, adibidez, nire hiru argazki agertu dira egutegian eta

horietako bat azalean jarri dute. Aurten, gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiko egutegi lehiaketan ere argazki bat saritu didate. Bertan Iñaki Oregiren argazki bat ere agertzen da. Horrelako errekonozimenduak beti dira pozgarriak, baina saririk onena beti da buruan daukazun argazki hori lortzea. **Halako sariketetan, baina, oraindik emakume gutxi ikusten da. Zu, berri, epaimahaikide ere izan zara...**

Aurten Kontrargikoek gonbidatu naute argazki rallyan epaimahaikide izatera. Lan demasa egiten dute, zorientzekoa. Herriz herriko rallyen sailkapen orokorrean 40 gizon daude eta 8 emakume. Baina, adibidez, institutuan ikastaroak eman izan dizkiet gazteei eta horietara gehien etortzen direnak neskak dira. Beraz, argazkigintzan ere parekatzen joango dira kopuruak. Horrela izan dadin nire aletxoa jarri nahiko nuke. **Zein da atera duzun argazkirik gogokoena? Zergatik?** Galdera zaila! Igual Mutrikuko olatuen argazkiren bat, egunsentian olatuak apurtzen ikustea sekulako espektakulua delako. Saturraranen haitzen atzetik ilargia irteten ikustea ere oso polita da. Gehienetan "photopills" mugikorreko

## "IA-K INOIZ EZ DITU AIPATU DITUDAN MOMENTUAK ETA BIZIPENAK ORDEZKATUKO"



Martintxoria Bizkaian, HIDE batetik aterata; Gipuzkoako Foru Aldundiak saritutakoa.



Ondarbeltzeko arrantzale ausarta; Gipuzkoako Foru Aldundiak saritutakoa.

aplikazioa erabiltzen dut argazkiak planifikatzeko, horrela aurrez jakitzen dut eguzkia zein ilargia noiz eta nondik irtengo diren.

**Zer/zein leku/gauza gustatuko litzaizuke erretratatu eta oraindik ez duzu lortu?**

Nire lagun argazkizale batek eta biok beti izaten dugu ideiarene bat buruan bueltaka, oraintxe basoan lilipak lorlan daudela entzun dugu, beraz, behe-lainoa dagoen egun batean horraxe joango gara. Euskal Herritik kanpo, aurora borealak itxaron zerrendan dauzkat. Kar kar.

**IA indarra hartzen ari den honetan, IA erretratuetarako bai ala ez?**

Teknologia berriak maite ditut nik, baina ez litzaidake gustatuko afizio hau fikzio bihurtzea. Funtsean, IAk inoiz ez ditu aipatu ditudan momentuak eta bizipenak ordezkatuko.

Momentuko emozioaren parekorik ez dago. Niretzat irudi kreatiboak lortzeko sormen tresna bat gehiago izan daiteke. Norbere balore onak edozeren gainetik jartzen badira tresna oso interesgarria. Egia esan behar da, zer den erreala, zer eraldatua edota zer sortua.

**Besterik nahi baduzu gaineratu...**

Nire argazkien berri izan edota zerbait galdetu nahi badidazue instagramen @guruariznabarre nautzue.

ZORION AGURRAK



**Markel Larrañaga Gallastegi**  
Otsailaren 18an 9 urte. Zorionak Marke!! Patxo haundi bat etxekuen partez, batez ere Beñaten partez.

**Urte askotarako!**

Zorion itzazu lagunak eta senitar-tekoak; bi bide dituzu:

**Internet**  
Plaentxia.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://plaentxia.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta hilabeteko azken ostiralean aldizkarian.

**Posta elektronikoa**  
Mezua bidali [zorionagurrak@pilpilean.eus](mailto:zorionagurrak@pilpilean.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

**Jaiotakoak**

Malen Etxabe De Castro

**Mota guztietako leihoak, pertsianak, atsek, barandilak salmenta eta korponketa**

**ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA**

T. 662 234 609  
Sagar Eneka Kalea 2 - 20090 DONALDIZTE  
e-mail: [odrileihoak@gmail.com](mailto:odrileihoak@gmail.com)

**KM design**

943 76 99 85

Pol. Amilago 3 BERGARA

Disenueleta Fabrikazio lanak

Sukaloak  
Horma-ondarrak  
Logelak  
Zonak  
Aloak...

Arotzeria lanak oro har  
Instalazioak

[kumunleak@yaho.es](mailto:kumunleak@yaho.es)  
[www.kmdesign.es](http://www.kmdesign.es)

**bertako**  
igogailuak | ascensores  
**KORRIKAN ERE**

**EUSKARA, GURE HELBURU PARTEKATUA**

943 903 450 [bertako.eus](http://bertako.eus)

**administradores**

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO**

Etaldeen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
[rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)

Zuzendaritzako karguak berriterra doan komunitatean bizi naiz. Estatuetan garajea elementu banaezin moduan ageri da, elementu komunetan %21eko partaide-tzarekin. Jakin nahi nuke zuzendaritzako presidente edo idazkari izan daitekeen gara-jeetako jaberan bat. Gainera, garaje jabe batzuk beraien plaza itxi egin dute, hormak elementu komunetan eginez. Ez dutenez baimenik eskatu, jakin nahi nuke garajeen komunitateko baimena behar duten edo eraikin guztiarena.

Hasteko, garaje jabeen artean aukeraturatoko bat izan daiteke presidente edo idazkari batzarretara joan eta bozkatzeko. Gero eraikineko etxejabeen batzordeak aukeratu beharko du ordezkaria. Bigarren galderari dagokionean, garaje bat itxia garajeen komunitateari dagokion ekin-tza da, beraz, Kode Zibileko Ondasunen Komunitatea arautzen duten baldintzen arabera aztertu behar da. Printzipioz, ekin-tza hori printzipio horien kontrakoa da, baina beharrezkoa da Ondasunen Komunitateko barne araudia ezagutzea seguru egoteko. Obra horrek ez badie kalte-rik egiten elementu komunei, Etxejabeen Komunitate Orokorrek ezingo du kontra egin, etxejabe batek bere etxe barruan horma bat jartzen duenean egiten ez duen bezalaxe.

**ONDORIOA:** Eman dituzun datuen arabera, ez du ematen hormak elementu komu-netan jarri izanak eraikinaren segurtasun eta erresistentziari eragiten dionik. Kontrara izan balitz, Komunitate Orokorrek, Garajeetako Komunitateak edota edozein etxejabe norbanakok hasi ditzake erreklamazioak.

**GOAR** AHOLKULARI KOLABORATZAILEA  
San Bartolome, 2


ESKELAK

ESKELA

## Alejo Rolo Andres

2024ko otsailaren 7an hil zen, 54 urte zituela.

Gurasoak: Francisco Rolo eta Maria Andres †.  
Anai-arrebak: Petri Rolo, Loli Rolo, Ana Rolo eta Iratxe Osoro.  
Ilobak: Adur Odriozola Rolo, Udane Garcia Rolo eta Ariane Garcia Rolo.



Familia.



**ESKELAK JARTZEKO: 699 86 87 29**  
edo [eskelak@pilpilean.eus](mailto:eskelak@pilpilean.eus)

Hil diren herritarren eskelak, oroirgarriak eta urteurrenak argitaratzen dira aldizkarian eta Plaentxia.eus webgunean.

Tarifak (BEZ barne):

- ▶ Arrunta: 75 / Bazkideek 60
- ▶ Handia: 120 / Bazkideek 96

**Pil-pilean eta Plaentxia.eus: irakurrienak Soraluzen.**

**Soraluzeko Kooperatiba Elkartea**  
1910etik ezabak

Arraindegia, janaria, errapak, etako freskak, etxera eramateko zerbitzua

**Kalebarren 4**  
Tel: 943 75 13 45

Astelehenerik ostiralera:  
08:30 - 13:30 eta 17:00 - 19:45  
Larunbatak: 08:30 - 13:00

**OKELIA HARATZEA**



- Enkarguak hartzen ditugu
- Gortako ganadua
- Etxeko tripekak, txistolana, salbitza eta mingaina

Etxaburuetan 3  
Telefonoa: 943 75 23 75

**TXURITXU GOZOTEGIA**

Astelehenerik ostiralera: 08:30-13:00 eta 16:30-20:30  
Larunbata: 08:30-13:00  
Igandek: 08:30-14:30



Gosariak, oja, perrea, pastelik, borbotak...  
Etxera eramateko zerbitzua

Tel: 943 75 24 43

**Griado**  
Fruitategia Urdaitegia

- Enkarguak Whatsapppean
- Etxerako zerbitzua
- Iberikoak & delicatessen

Astelehenerik ostiralera:  
09:00-13:00 eta 17:00-20:00  
Larunbatak: 09:00-13:00

629 958 536



**Kontulan**

Ahoikularitza fiskala · Kontabilitatea  
Lan-ahokularitza · Zerbitzu juridikoa  
Ticket bai · Outsourcing · Aseguruak

[www.kontulan.com](http://www.kontulan.com)

**ELIZPE HORTZ KLINIKA**

Zure genakoa horts klinika, punta-puntako teknologian lan egiten dugua. Cad Cam sistema berritzailea erabiltzen dugua.

Elizburu, 3 behea  
SORALUZE  
Tel: 943 75 25 67  
Bilag: 947 42 78 19  
e-mail: [elizpe@pilpilean.com](mailto:elizpe@pilpilean.com)

Ordutegia:  
Astelehenerik ostiralera  
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00



Bidelagun euskaltzaletasunean





errigora

# Eutsi gureari!

Nafar hegoaldeko uzta  
**Zuhatza Euskara Elkarteko**  
bazkideen eskura

Eskatu oliba-olio birjina estra, arroza, pasta,  
kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz  
etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



Eskariak [www.errigora.eus](http://www.errigora.eus)  
**Otsailak 25 - Martxoak 13**

Produktuak jasotzeko eguna:  
**Maiatzak 17, 18:00etan**  
**Gaztetxean**

